

txintxarri



Xomorro eta gaitzak erre dituzte

Euskal Inauterietako lagunek Zubietarekin senidetzea berritu eta Lasarte-Oria alaitu dute, Kaxkamalo erreta / 6-7

Zaintza, erdigunean

Martxoaren 8ko grebaren ardatzetako bat izango dira emakume zaintzaileak / 8-9

Andaluzia Eguna jai giroan ospatu dute Semblante Andaluzeko kideek, bazkaria, musika eta guzti / 4

Naroa Furundarenak eta Eneritz Gonzalezek Euskadiko txapelketa irabazi dute luzera jautsian / 10



SUKALDARITZA TALERRA

HH5/LH1/LH2koentzat

ASTELEHENETAN: Martxoaren 11tik Apirilaren 8ra. 17:30etatik 19:00ak arte.

ASTEARTEETAN: Martxoaren 12tik Apirilaren 9ra. 18:00etik 19:30ak arte.

Non: Ttakunenean (Iñigo de Loiola kaleko lokalean).

Prezioa: Ttakuneko bazkideak 14€, bazkide ez direnak 17€.

Izen-ematea: aisia@ttakun.eus | 695 785 392 edo 943 37 14 48 | Ttakunen bulegoan



Jesus Zaballo alkatea eta Ekoguneko Ander Aizpuru, elkarlanerako hitzarmena izenpetzen. TXINTXARRI

Jasangarritasuna landatzeko hitzarmena

Udalak Kutxa Ekogunearekin elkarlanerako hitzarmena sinatu du, eta 58 baratze ekologiko jarriko dituzte herritarren eskura. Lanak berehala hasiko dira, eta espero dute adjudikazioak apirila eta maiatza bitartean egitea, ekainerako landatzen hasteko

Txintxarri

Herritarren eskura baratze ekologikoak jartzeko proiektua martxan du udalak, eta espero du aurten burutzea prozesua. Joan den ostiralean sinatu zuten Jesus Zaballo alkateak eta Kutxa Fundazioa Ekoguneko Ander Aizpuruak elkarlanerako hitzarmena. Modu horretan, 58 baratze utziko dituzte herritarren esku, 30 metro koadrokoak; horietatik bi izango dira mugitzeko zailtasunak dituztenentzat.

Udalbatzarrek onartua du baratza ekologikoak sortzea udalaren lurretan. Barne araudia idazten ari dira, eta oraindik aurkezteko dute baratzeak adjudikatzeko sistema. Parte hartze prozesua abiatu zuten, barne araudiaren inguruan herritarren ekarpenak jasotzeko. "Bi pertsonak egin dituzte proposamenak, eta saiatuko gara kontuan edukitzea", adierazi du Zaballosek.

Araudia Ingurumeneko batzordera eramango dute, eta

udalbatzarretik pasako da ondoren. Ekimenak arrakasta badu, bigarren fasean 33 baratze gehiago ezarriko dituzte. Hitzarmena sinatuta, lanak berehala hasiko dira. Martxoan nahi diete herritarrei aurkeztu, eta adjudikazio prozesua egin apiril-maiatz bitartean. Horrela, ekainerako erabilgarri leudeke baratzeak.

Proiektuaren sustatzaileek argi utzi dute: erabilera pertsonalerako dira baratzeak, autokontsumorako. Alegia, debekatuta dago bertan hazitako produktuak saltzea.

Kutxa Fundazioak 2013. urtean jarri zuen martxan Baratzen Parke Sarea. Lasarte-Oriarekin 22 udalerrri atxiki dira Gipuzkoan.

BI BARATZE MUGIKORTASUN ARAZOAK DITUZTENENTZAT IZANGO DIRA

"Kutxa Ekogunea bidez jasangarritasuna bultzatzea dugu helburu, kontzientziatzearekin ekintzetara igarotzeko", azaldu du Kutxa Fundazioko Aizpuruak.

Furgobaratza

Baratzean lan egingo dutenek izango dute zerbitzu berezi bat: Furgobaratza. "Laguntza teknikoak emango diete. Furgoneta batean joango da teknikari bat, eta familiei azalpenak eman, eta behar dutena erakutsiko die. Gainera behar duten haziak eta landareak emango dizkie", esan du Aizpuruak.

Jasangarritasuna bultzatu, eta komunitate bat sortzea bilatzen du Ekogunekoak, erabiltzaileek esperientziak eta lantresnak partekatu ditzaten. "Baratzerako behar duten tresnak uzten dizkiegu, denek erabili ditzaten". Are gehiago, komunitateen arteko harremana sustatzen dute. "Zenbat eta komunitate sare handiagoa izan, jasangarritasuna lortzeko helburua errazago beteko da".



Hainbat lagun elkartu ziren atzoko eguerdiko ekitaldian. TXINTXARRI

Balerdi eta Iturralde gogoratu dituzte heriotzaren urteurrenean

Hamasei urte bete dira Argi Iturralde eta Iñaki Balardi herritarrek auto istripu batean hil zirenetik

Txintxarri

Argi Iturralde eta Iñaki Balardi lasarteoriatarrek auto istripuan hil zirenetik hamasei urte bete ziren atzo. 2003ko otsailaren 28an gil ziren auto istripu batean Almeriako kartzera bidean zihozela semea eta anaia bisitatzen. Joxe Balardi, senar eta aita, larri zauritu zen, bizi osorako oinazeekin.

Gertakariaren urteurrenean, ohi bezala, agerraldia egin du Lasarte-Oriako EH Bilduk Askatasunaren parkeko eskulturaren. Indarrean dagoen dispertsio politikaren amaitzea eskatu zuten beste behin, presoak

bisitatzen bidean 16 senide eta lagun hil baitira; "30 urtetako ondorio larriena".

Era berean, salatu zuten biktima horien memoriari nahiz familiei egiten zaien bazterkeria, aitortza soziala eta instituzionala eskatuz. Izan ere, gogora ekarri dute 16 urte daramatzatela "Argi eta Iñakiren memoria kaletik eta herri ekimenetatik bizirik mantentzen". Udaleko alderdi politikoei, Eusko Jaurlaritzari eta dagokien instituzio guztiei luzatu zieten eskaera. "Biktima guztiek egia, justizia, erreparazioa eta diskriminazio ezaren eskubidea baitute".



TXINTXARRI

Saharari elkartasunak batuta

Mendebaldeko Sahararen aldeko elkarretaratzea egin zuten asteazken iluntzean. Hain zuzen ere, herrialde horren aldarrikapenaren 43. urteurrenean. Euskal Herriko Lagunak Saharakoekin Bat elkarteak deituta, 20 bat lagun batu ziren Maroko Sahararik at. Independentzia Sahararentzat zioen pankarta atzean. Udalak, ohi bezala, bandera sahararra jarri zuen udaletxe bakoian.

Erraustegia ere, klima aldaketaren borrokan

'Change the change' Klima Aldaketari Buruzko Nazioarteko Konferentzia egingo dute Donostian datorren astean, eta Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak elkarretaratzeak antolatu ditu, asteartean eta asteazkenean, 19:00etan, Zubietako proiektua salatzen

Txintxarri

Erraustegiak osasunean eragingo dituen ondorio kaltegarriak buruz mintzatu dira askotan azpiegitura horren aurkakoak. Baina Zubietan egingo duten plantaren aurka egiteko badaude beste hainbat arrazoi. Besteak beste, CO2 partikula mordo isuriko ditu atmosferara, hain zuzen, klima aldaketaren aurkako borroka politikari askoren ahotan dagoen une hauetan. Horixe aprobetxatu nahi du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Datorren astean, martxoaren 6tik 8ra, Klima Aldaketaren Nazioarteko Konferentzia egingo dute Donostian, eta elkarretaratzeak antolatu ditu mugimenduak, *Change the change* biltzarreko gonbidatuei erraustegiaren proiektuaren berri emateko. Martxoaren 5ean, asteartean, 19:00etan elkartuko dira Alderdi Ederren, Donostian. Hurrengo egunean, ordu berebean, Kursalean.

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren arabera, Donostiako agintariek haien burua zurutu nahi dute, "proiektu kutsagarriak" egiten dituzten bitartean. "Milaka tona hondakin erretzen ditu Añorga-Rezolako porlan fabrikak, agintariek



Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideak. TXINTXARRI

baimena emanda. Zubietako erraustegia ere klima kaltetzen dutenen zerrendan sartuko da". Besteak beste, Ekologistak Martxan, Eguzki, ELA, LAB, CCOO, Equo, Irabazi, eta EH Bildu taldeek parte hartzen dute mugimenduan.

Larunbatean, adostasun eske

Erraustegiko lanak azken fasean sartu diren heinean, gora egiten ari da presio soziala. Joan den larunbatean milaka pertsonak "adostasunerako eskaintza zintzoa" luzatu zuten Donostian,

GuraSOSek antolatutako manifestazioan. Antolatzaileek nabarmendu dute inoiz egin duten ekitaldi jendetsuena izan dela.

Greenpeace talde ekologistak ere parte hartu zuen manifestazioan, eta berretsi GuraSOS ez dabilela gezurretan, hondakinak kudeatzeko eraikitzen ari diren azpiegitura hori ez dela guztiz fidatzekoa: "Ez dituzte isurkin kutsakor eta toxikoak etenik gabe neurtuko, eta ez da punta-puntako teknologiarekin eraikia izango".



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

Erresilientzia

Aurtengo urrian beteko da Estatutua erabaki zeneko berrogeigarren urteurrena. Urtetan, aberriaren izenean ari izan diren batzuei euskal naziotasunaren ukapena eta euskal lurraldearen partizioa zekarrela iruditu izan zitzaielako, oposizioerik gogorra egin zioten. Lurrez, itsasoz eta airez, eta arma guztiak erabiliz, egindako erasoak amaigabeak izan dira.

Hala eta guztiz ere, gutxi ezezten dute gaur, lau hamarraldiko autonomia aroa emankorra izan denik. Ibarretxe lehendakariak esaten duen modura, Estatutuak gure esku jarritako ahalmenen bitartez, Europako herrialde aurreratuenen neurriko 'giza garapen sostengarria' lortu dugu. Eta, zentzu horretan, iritziz zeharo aldatu dute hasiera hartako ukatzaileek ere. Orain 40 urteko erabaki hura, txepelkeria umiliagarria bezala salatzen Espainiako zentralkeriari irabazitako konkista gisa goraiatzera pasa dira. Nabarmena emandako ziaboga politikoa. Baina ez dugu ukatu behar aurrerabidean jarri gaituen zuzenketa izan denik. Etorkizunari buruzko ikuspegi okerreko bide haren arabera gaizki egindakoa aitortzea falta bazaie ere.

Dena dela, Estatutuak aurkari boteretsuak izan ditu Madrilen ere. Gure burujabetze-prozesua alde guztietatik moteldu eta higitu nahi izan dutenak. Eskubikoak zein ezkerrekoak. Azken garaian, indar eskubitarrak ari dira jarrerarik lotsagabeenak erakusten, gure autogobernuarentzat oso kaltegarria den norgehiagoka zentralista batean murgilduta. Espainiako Senatuan, egun hauetan onartu den ebazpena oso adierazgarria da.

Gure erabakimena babestu nahi badugu, ezin gara egingarriak ez diren ametsekin nahaspilatu. Aldiz, oraingo autonomia defendatzeko gai garela frogatu beharko dugu. Horrexegatik, hemen Euskal estatutua agortuta balego bezala hartu nahi dutenak jakin behar dute, han arau hori baliogabe utzi nahi dutenen joko berean ari direla. Presta gaitezen ondo, erresilientzia garaia baitatuz.

Errigorak martxoaren 7an hasiko du udaberriko kanpaina

Udazkenean saskiak eskatzeko aukera eskaintzen du Errigorak. Orain hastear duen kanpaina, etxeko despentsa beteta eusteko oliba olio eta beste produktuak eskatzeko aukera zabalduko du. Produktuei

buruzko informazioa eta kanpainaren filosofia www.errigora.eus webgunean daude. Ateratako etekina euskara ofiziala ez den tokietan euskalgintzari bultzada ekonomikoa emateko erabiltzen du. Aurten bi berrikuntza ditu: kamisetak eta arroza eskainiko dituzte. Martxoaren 22a da eskaera egiteko azken eguna.

GIDA KOMERTZIALA

www.txintxarri.eus/gida

Denda, taberna, jatetxe edo enpresa bat duzu?

- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarria.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletan...

txintxarri

GIDAN PARTE HARTZEKO:

publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) | 646 82 44 66 | Geltoki kalea, 4

berria!



42€
urtean
(bez barne)



NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA 2019ko ekaina

Noaoak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Andaluzia Eguna eta urteurren berezi bat

Semblante Andaluz elkarteak beti dauzka arrazoiak ospakizun giroan egoteko. Aste honetakoak, oso bereziak: Andaluzia Eguna eta Semblante Rocieroren 25. urteurrena. Abesti berri bat konposatu du koroak, eta jendartean aurkeztu, ibilbidea erreparasatuz

Iñigo Gonzalez Sarobe

Otsailaren 28a izan zen atzo. Egun oso berezia Semblante Andaluz elkartearentzat: Andaluzia Eguna ospatzen da. Ohorezko ardoarekin egin zuten topa iluntzean. Elkarteko kideak eta udal ordezkariak elkartu ziren Atsobakar auzoko egoitzan.

Pasa den asteburua ere aprobeztatu zuten ospakizunak aurreratzeko. Larunbatean umeak izan ziren protagonista. Duende taldeko gaztetxoak igo ziren oholtzara, eta aurten ikasi duten guztia erakutsi. Izaskun ipuin kontalariaren abenturak entzun zituzten txikienek, eta baita aurpegiak margotu ere.

Igandean jarraitu zuen festa giroak. Eguerdian, urtero legez, meza. Ramon Uribe-Etxebarria apaiz beteranoak gidatu zuen ia ordubeteko elizkizuna. Hitz egin ez zuen tartetan hainbat abesti kantatu zituen Semblante Rociero koroak. Urte berezia da



Rubito Hijo musikariak flamenko doinuekin girotu zuen igande arratsaldea. TXINTXARRI

2019a beraientzat: taldea sortu zenetik 25 urte betetzen dira. Duende taldeko gazteek ere Arantzazuko Ama elizan bertan dantzatu zuten.

Meza bukatzean, parrokia ondoko plazan kantuan eta

dantzan egin zuten hainbat herritarrek, bazkalordura arte.

Congostorekin harreman estua
Semblante Andaluzek harreman estu eta berezia dauka Burgosko Congosto herriko biztanleekin.



Congostoko eliza berritzeko dirua eman du Semblante Andaluzek. TXINTXARRI

Urtero joaten dira bisita egitera ekainaren 29an, San Pedro egunean. Lasarte-Oriako jaiak izanik ere, ia bi autobus betetzea lortzen dute.

Congosto herri txikia da eta biztanle gutxi ditu, baina lanerako gogo handia. Eliza berritzen ari dira duela zenbait urtetik. Lanekin laguntzeko, Semblantek erabaki du berez koruarentzat izan behar zuen diru-laguntza bat, ia 1.700 euro, beraiei ematea. Hunkituta jaso zuten txekea Jose Mari eta Anita Ruiz Perez neba-arrebek; Congoston bizi dira biak.

Andaluziako ereserkia abestu eta gero hasi ziren sardeska eta

aiztoak dantzan. Portugaleteko Sukalde enpresa arduratu zen otorduaz: hasteko, marisko entsalada hotza, foie grasa eta hestebeteak; gero, txanpinoiak hirugiharrekin; bigarren platera, legatza saltsan edo txerrimasail gisatuak; eta, postrerako, tarta. Bapo bazkaldu zuten 200 bat pertsonak.

Flamenkoa entzun bitartean egin zuten digestioa. Rubito Hijo musikariak eskaini zuen emanaldia. Dantzan eta txaloka jarri zituen artista sevillarrak. Hori baino lehen, 25. urteurrena ospatzeko espreski konposatutako kanta aurkeztu zuen Semblante Rociero koroak.



Javi Gallaga Ruiz
Centro penitenciario
Carretera Sevilla-Madrid Km 391
Apdo 479
14015 Alcolea
Córdoba

Aitzol Iriondo Iartza
Centre Pénitentiaire
Moulins-Yzeure
Les Godets
B.P. 24
03401 Yzeure Cédex
France

Natura espazio itxi batera eraman nahian

Naturako elementuak oinarri ditu Pilar Soberon herritarraren 'Hodei putzua. Jardín vertical' erakusketak. Irungo Menchu Gal aretoan ireki ditu ateak, maiatzaren 12ra arte. Hamar artelan ikus daitezke; batzuk aretoan bertan sortu ditu herritarrak

Txintxarri

Pilar Soberon herritarraren *Hodei putzua. Jardín vertical* erakusketa Irungo Menchu Gal erakusketa gelan dago.

Erakusketa horretan lorategiaren mitoa landu du. Lorategietan natura, mitoa eta kreaioa nahasten dira, garapen bat duen lana sortuz. Eguzkiak eta izerdiak elikatzen dute, eta geometriak eta desordena dira nagusi. Horrela, lorategiari buruzko beste pertzepzio bat eman nahi izan du herritarrak. "Espazio honetara natura ekarri nahi nuen eta lorategiaren ideia etorri zitzaidan burura. Baina ikuspuntuari buelta eman nahi izan nion eta horregatik, lanak lurrean, paretetan eta sabaian daude".

Irunen hamar artelan daude ikusgai. Horietako batzuk bereziki erakusketarako eginak daude, eta aretoan bertan egindakoak dira. "Espazioaren ezaugarriak aztertu nituen. Jauregi bat da, bere istoria du... Horiek kontuan izanik, espazioan lan egin nuen artelanak sortzen", adierazi du Pilar Soberonek.

Natura aretora eraman nahi horretan, haziak, zuhaitz eta landare hostoak, mineralak eta beste elementu batzuk erabili ditu Soberonek erakusketako



Hodei putzua erakusketako artelanetako bat. PILAR SOBERON

lana sortzean. Nahiko arraroa den alabastro urdina da mineral horietako bat.

Teknikak ere nahastu ditu. Argazkia, margoa eta harriak batu ditu lanetako batean. "Margoei erliebea jartzean, eskultura bilakatzen dira, eta aldaketa horiekin ere jolastea dut gustuko".

Horrez gain, Soberonek naturan egindako ekintzak beste formatu batera ekarri ditu erakusketa honetarako. "Mosaiko digitalean naturan egindako interbentzio batetako irudiak ikus daitezke. Kanpokoa eta aretoko nahastu nahi izan ditut. Mugak hautsi

eta sorkuntza askea denez, artea ere horrelakoa izan daitekeela erakutsi nahi izan dut", azpimarratu du Soberonek.

Menchu Gal erakusketa aretoak emakumeak arte garaikidean duen papera nabarmendu nahi du erakusketa honen bitartez, baita 2019an aurreikusitako dituen beste batzuekin ere.

Maiatzaren 12ra arte ikusi ahalko dira herritarraren lanak Irungo Urdanibia plazan. Ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara, egongo da irekia erakusketa gela; igande eta jai egunetan, berriz, 11:30etik 13:30era.



Udaleko kultur arduradunak eta eragileak, kultura agenda aurkezten. TXINTXARRI

Zinema, opera eta jaialdiek hartuko dute martxoa

Kukukaren Antzerki Topaketa, Adinkide eta Aterpearen topaketak, eta Aste Musikala eskainiko dituzte

Txintxarri

"Martxoa ekitaldiz bete-bete dator". Horixe azaldu dute Lasarte-Oriako Udaleko kultura arduradunak. Izan ere, Inauteriaz eta Martxoaren 8ko egitarauaz aparte, beste hamaika kultur ekitaldi prestatu dituzte. Nabarmenezkoak, zinema, Aste Musikala, Kukukaren Antzerki Topaketa, Adinkideren jaialdia, Aterpearen topaketak eta erakusketak.

Zinemari dagokionez, kalitate handiko bi film ekarriko dituzte. Batetik, film onenaren Oscar saria irabazitako *The Green Book* (martxoaren 17an). Bestetik, Telmo Esnaen *Dantza* (martxoaren 31n). Era berean, haurrentzako zinema ere izango da hilabetearen zehar.

Aste Musikala martxoaren 14, 15 eta 16an egingo dute. Danok Kidek *Otxote Txanbela* ekarriko du, eta Demode Quartet eta

Katiuska zarzuela ere izango dira ikusgai. Horrez gain, hilaren 13an opera denboraldiarekin jarraituko dute, *Andrea Chenier* obrarekin.

Jaialdiak

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak martxoaren 27an egingo du Antzerki Topaketa, nazioarteko egunarekin lotuta.

Bestalde, Adinkidek jaialdia egingo du hilaren 30ean. Getaria banda, Alboka abesbatza eta Lasarte-Oriako danborrada izango dira bertan.

Aterpeak ere antolatu du ekitaldi bat, martxoaren 23an: Moda topaketa. Ileapandegiak eta osagarriak izango dira ekitaldiaren egitarauaren ardatzak. Azkenik, erakusketak ere izango dira Mercero gunean. *Brancussi*, hilaren 1etik 8ra, eta Severiano Iglesiasen pintura, hilaren 22tik 14ra.



MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Orutegi malgua daukagu
Uisfin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Zaindu ezazu zure azala!

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratuko dugu

Jaister aitarien eguna da eta ez dakizu zer oparitu?

Zatoz eta opari txartela prestatuko dizugu








Manikura eta pedikura - Makillajea - Aurpegi eta gorputz tratamenduak - Mota ezberinetako depilazioak - Solariuma - Befileen findatzea eta permanentea - ...

Suak garbitu du Lasarte-Oria

Euskal Inauteri eguzkitsuak

Lasarteoriatarrek lasai hartu dezakete arnas: xomorro bihurriek eta gaitzek bakean utziko dituzte, datorren urteko Euskal Inauteriak ospatu arte behintzat. Kaxkamalo bihurria erre zuten Okendo plazan mamoxarroek eta txantxoek. Eguraldi ezin hobea lagun, Euskal Inauteriak ospatu zituen herriak larunbatean, goiz eta arratsalde, giro ederrean. Puska bila atera zen txantxo kuadrilla eder bat goizean. Herriko zenbait elkartetara joan ziren hamaiketako egitera, kantuan aritu eta gero. Arratsaldean, Zubietatik Lasarte-Oriara joan ziren kalejiran. Hipodromo etorbidera iristean, Lasarte-Oriako korporazioak (aurten guardia zibilez mozarrotuta, 1981eko otsailak 23ko estatu kolpe saiakera parodiatuz) egin zien harrera. Urteroko ituna berritu zuten: urrezko dukatuak, jakiak eta edariak, Lasarte-Oriako uztak, abereak eta biztanleak lasai uztearen truke. Akordioa berrestea ospatu zuten segidan, Okendo plazaraino kalejiran joanez. Ilundu arte aritu ziren kantuan eta dantzan. Kaxkamalo sutara bota zuten eguzkia ezkutatzean.



Goizean puska bila ibili ziren txantxoak. Herriko zenbait elkartetan geratu ziren hamaiketako egitera. TXINTXARRI



Goiz osoan kantuan ibili eta gero, eztarriak freskatzeko sagardo trago bat edan zuen txantxo batek baino gehiagok. TXINTXARRI



Zubietan hasi zen txantxoek larunbat arratsaldeko kalejira. Lasarteoriatar batzuk



Mamoxarro bihurriek ere parte hartu zuten larunbateko kalejiran. TXINTXARRI



Kaxkamalo erre aurretik buelta batzuk eman zituzten txantxoek. TXINTXARRI



Txantxo eta mamoxarroek eman zioten su Kaxkamalo xomorroiari. TXINTXARRI



Jendetza joan zen Okendora, Kaxkamalo sutan erretzen ikustera. TXINTXARRI

ere bertan hasi ziren dantzan. TXINTXARRI



Zubietak eta Lasarte-Oriak ituna berritu zuten Hipodromo etorbidean. TXINTXARRI



Kale Nagusian geldialdi bat baino gehiago egin zuten txantxoek, dantza gustura egiteko. TXINTXARRI



Kale Nagusitik Okendora joan ziren txantxoak larunbat arratsaldean. TXINTXARRI

"Ez gara iristen, eta leher eginda gaude"

ESTI AMANTEGI ZAINZAILEA

Ratioak eta soldata taulak hobetzeko borrokan ari dira Atsobakarreko langileak, "denontzat onuragarria" delako. Martxoaren 8ko ardatz eta zeharlerroetako bat da zaintza, eta egun horren aldarrikapenei batuko diete euren ere

Maitane Aldanondo

Esti Amantegik (Lasarte-Oria, 1973) ia hamarkada darama Atsobakar zahar etxean zaintzaile lanetan. Une zailak bizi dituzte, azarotik greban baitaude. Lanuzteen alde egin zuten, patronalak urtebetez uko egin ziolako negoziatzeari; gerora ere ez du hizketarako asmo gehiegi erakutsi. Zailtasunak zailtasun, protestari eusten diote eta euren aldarrikapena kalera aterako dute martxoaren 8an.

Zaintza lanean diharduzu. Nolakoa da zure lana? Zein baldintzatan aurrera eraman behar duzue?

Bederatzi urte daramatzat Atsobakarren zaintzaile lanetan. Aukeratutako lana da, gustuko dut; baina egiten oso zaila da. Baliabideak falta dira, langile gutxi gara ditugun erabiltzaile ratioentzat, ozta-ozta gabiltza zerbitzua emateko... Horrela ezin dugu zerbitzu on bat eskaini, nire ikuspuntutik.

Zergatik uste duzu horren baldintza kaxkarrak dituzuela?

Oso lotuta dago zaintza emakume sektorea izatearekin; feminizatuta dago. Atsobakarren gehienak hala gara. Zaintzan, zuzenean, denak emakumezkoak gara;

gizonezkoak dira mantenukoa, ikuskatzailea eta harrerako langileetako bat. Uste dut hala dela, zaintza lana izanda ere, beti ikusi delako soldata osagarria bezala, ez familiaren oinarria den ordainsari gisa.

Etxetik kanpo zaintzaile izateaz gain, etxe barruan ere lan hori zure ardura al da?

Zama horren gehiena emakumeok dugu. Kulturalki emakumeak bideratzen gaituzte zaintza gure gain hartzera: gaixoak, zaharrak, umeak... Ni ama naiz, beste ama baten lanaldi murriztapena ordezkatzeko, eta

amatasunarekin bateratzen dut lana. Sektore honetan gehienak ama gara. Adin bat dugunon gurasoak ere zahartzen ari dira, eta karga hori hartzen dugu. Haurrak utzi eta gurasoak hartu. Emakumeon ardura izan da beti zaintza; beste arlo batzuetan, metalurgian adibidez, gehienak gizonak diren bezala.

Eta gizartean zainketa lanak balioesten al dira?

Ez. Zaintzari ez zaio batere garrantzirik ematen. Gure kasuan, greban ari gara, eta hitzarmen bat sinatu gabe daramatzagu bizpahiru urte. Momentuz inork

ez du asmorik gurekin eseri eta akordio bat negoziatzeko. Beste sektoreetan, ordea, beste jarrera bat ikusten dugu patronalaren aldetik; presiorako gaitasun gehiago dute langileek.

Zuen borrokari dagokionean, zein puntutan zaudete?

Greba azaroan hasi genuen. Ordurako patronalak urtebete zeraman negoziazio mailan esertzeari uko eginen. Orain badirudi zerbait aurkeztuko duela, baina eskatzen dugunetik oso urruti. Gatazkak luze joko duela dirudi.

Zein da patronalaren proposamena?

Gipuzkoako hitzarmenetik abiatu nahi zuten. 2008. urtekoa dela uste dut; eta ez du zerikusirik enpresa hitzarmenarekin. Sindikatuek ezetz esan zuten, eta ez dakit zehazki zertan den azken eskaintza.

Eta, aldiz, zuen aldarrikapena?

Soldata taulak eta ratioak. Batez ere, ratioak. Oso garrantzitsuak dira guretzat. Duen menpekotasunaren arabera, pertsona bakoitzarekin zenbat denbora egon behar dugun zehazten dute. Indarrean daudenak 2007koak dira, baina pertsonen egoera asko aldatu da, profilek ez dute zerikusirik. Gainera, autonomoagoak direnentzat denbora gutxiago aurreikusten da, baina bere erritmoan egin behar dituzte gauzak, eta, askotan, mantso doaz. Egoera zaila da. Batzuetan materialik ez daukagu. Garabiak erabiltzen ditugu, baina guk mugitzen dugu jendea. Pertsonekin lan egiten dugu eta gure lan karga oso handia da.

Jarduera nekagarria izan behar du, eta ez fisikoki bakarrik.

Ez gara iristen, eta leher eginda gaude. Jendeak bajak hartzen ditu, egoera fisikoa eta psikologikoa jasanezina baita. Bata besteari lotuta dago. Neke fisikoa eta psikologikoa da. Nekatua da fisikoki, zeren kristoren lan karga fisikoa dugu, pisuak dira. Baita emozionalki ere. Familiek batzuetan ez dute onartzen senideen egoera, eta harreman zuzena dugunez, gure gain hartzen dugu beraien frustrazioa. Jakin behar duzu hori nola bideratu. Zaila da.

Nola egituratzen duzue zuen greba?

Gure gutxiengo zerbitzuak oso altuak dira. Zortzi laguntzaile ari bagara lanean goizean, batek bakarrik egiten du greba. Zuzeneko artatzea egiten dugu,



Esti Amantegik eta lankideek lau hilabete daramatzate greban lan baldintza hobeak lortzeko. TXINTXARRI



Hemeretzi greba egun Gipuzkoan

Atsobakar zahar egoitzako langileek bat egin dute ELA sindikatuak deitutako Gipuzkoako zahar etxetako grebarekin. Hemeretzi egunez luzatuko dituzte protestak, otsailaren 20tik martxoaren 10a bitartean. Eskualdekako antolatutako ekintzak dira. Lasarte-Orian atzo kotxe karabana egin zuten eta martxoaren 7an elkarretaratzea egingo dute Okendo plazan, 11:30ean. Halaber, Emakumearen Nazioarteko Egunean ekintzekin ere bat egingo dute. Beti ere, gogoratuta, langileen ordezkari Ana Merchanen hitzak: "berdintasuna erdietsi eta soldata arrakalarekin amaitzea lortzeko, bizitza erdigunean jartzeko, martxoaren 8ko borrorak egunerokoa izan behar duela".

Sindikatuak sektoreko patronaletako birekin lortutako aurre akordioak 2010etik mantentzen den probintziako hitzarmena berreskuratzea eta enpresetakoen berritzea ekarriko luke, lan baldintza eta soldata hobetzeekin batera.

hau da, dutzak, garbiketa, janaria eman eta komunera eramane; baina gainerakoa, ez. Oheak, adibidez, egin gabe uzten ditugu. Antolatu egiten gara, egunak eskatzen ditugu, denek greba egin ahal izateko, partekatze. Eta martxoaren 8an ere hala izango da. Atsedendian aterako gara eta, agian, elkarretaratzea egingo dugu, edo herrikoarekin bat egingo dugu. Gure ratioak hain gutxienekoak dira, nahita ere ezin dugula egin.

Aitortza sozialik ez duzue, presioa egiteko gaitasunik ere ez; baina, era berean, gutxiengo zerbitzuak oso altuak dira. Ez al da paradoxikoa? Bai. hala da. Mundu paradoxikoa da. Familiek ulertzen dute, jakitun dira ez garelako guztia egitera iristen, eta gurekin daude. Baina kezkatzen dira. Adibidez, Aldundian kezkatu eta orain harreraren norbaitek egon behar du; besterik egiten ez badu ere, atea ireki eta ixteko. Behin inor ez zegoelako hesiaren beste aldera jauzi egin zutelako senideek egoitzan sartzeko. Ulergarria da, baina guri esan beharrean atera daitezela gurekin kalera. Eskatzen ari garena denontzat onuragarria izango da, bai

guretzat, bai familientzat, bai aitona-amonentzat. Oso zaila da. **Feminizatutako sektorea izateagatik dela uste al duzu?**

Bitxia da. Okerrago ikusia egoteaz gain, Michelinen greba egin dutenean, gizonen sektorea, gu baino lehenago iritsi dira akordio batera. Zergatik ematen zaio garrantzia hori? Eurak gurpilekin lanean ari dira, eta gu pertsonekin. Emakumeak garelako al da? Ez ditugulako iskanbilak sortzen? Beste modu batera daramagulako kexa? Patronalaren gehiengo gizonak dira, eta gu, emakumeak. **Emakumeen Nazioarteko Egunari lotuta protesta berezirik egiteko asmorik ba al duzue?**

Momentuz ez dugu ezer adostu. Atsobakar bezala kalera aterako garelako pentsatzen dut. Nik egingo dut, eta nik bezala, Atsobakarren jende askok. Lasarteko mobilizazioan, ez dakit nola, baina parte hartuko dugu. Gure aldarrikapen propioa jarriko diogu egun horri.

Martxoaren 8ko grebaren zeharlerroetako bat da zaintza eta emakumezko etorkinei ere erreferentzia zehatza egiten zaie. Sektore horretan asko dira, ezta?

Ez da kasualitatea. Gainera, are zapalduagoak dira, lotuago daude. Ordezkapen bat egiteko deitu eta ezetz esanez gero, berriro deituko ez dieten beldur dira. Denok dugu, baina batez ere beraiek. Nik ezetz esateko askatasun handiagoa dut.

Zer aldatu behar da zaintza alorrean?

Lan handia dago egiteko. Lehen pausoa izan daiteke Martxoaren 8an gizonen hartzea ardura eta hori ikustaraztea. Gizonak konturatzea. Batzuetan, "lagunduko dizut" esaten dizute. Nik ez dut behar laguntza; ez dut laguntzarik nahi. Nik ez dut "lagunduko dizut" esaten, egin egiten dut. Bada, eurek, gauza bera. Guk egiten dugu, horrela hezi gaituztelako, baina batzuetan ezetz esan behar duzu, anaiak egin dezala, adibidez. Baina kosta egiten zaigu.

Zergatik egin beharko genuke greba emakumezko Martxoaren 8an? Arrazoi asko ditugu. Ez da zaintza bakarrik, gizartea bera da. Epaitegietan ikusten ari gara zer gertatzen ari den: La Manada, bortxaketak, erasoak... Ez da ezer gertatzen. Gizonen agintzen dute. Gure tokia aldarrikatu behar dugu. Ikustarazi egin behar da emakumeon egoera, bereziki, gure sektorean. Ama bezala, alaba bezala eta zaintza sektoreko langile gisa, are gehiago. Zaintza nire gain dago eguneko 24 orduetan.

Egungo egoera iraultze bidean, zer eska dakieke gizonen sektorei?

Hasi dira umeekin parkera joaten, partidetara, eskolara eramaten... Oso ondo, euren seme-alaba ere badelako, baina horrekin egin al dute bere erantzukizunaren parte? Egunak 24 ordu ditu eta urteak 365 egun.

"KULTURALKI BIDERATZEN GAITUZTE ZAINZA GURE GAIN HARTZERA: GAIXOAK, ZAHARRAK, UMEAK..."

"ANTOLATU EGITEN GARA, EGUNAK ESKATZEN DITUGU, DENEK GREBA EGIN AHAL IZATEKO"



IV. Zunba maratoia egingo dute Okendo plazan hilaren 9an. TXINTXARRI

Aldarri bat, ekimen ugari

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, jarduera zerrenda oparua antolatu dute bai Lasarte-Oriako M8 Asanbladak, bai Lasarte-Oriako Udalak, berdintasun aldarria hainbat egunetan ohi baino presenteago egon dadin.

Herriko mugimendu feministak Martxoaren 8an erakutsiko du bere indarra. Gauerdian hasiko da 24 orduko greba feminista, baina goizeko 11:00etan abiaraziko dituzte ekimenak. Karabana osatu eta herrian barrena ibiliko dira; 12:00etan, kalejira hasi arte. Grebaren ardatzei lotutako bost geldialdi izango ditu eta Kale Nagusian eserialdia eginda amaituko dute, 13:30ean.

Eguerdiaren berriz, nork berak berea ekarri bazkalduko dute Okendo plazan, 14:30ean. Jarraian, *performance*-a, mosaikoa eta irakurketa egingo dute. Arratsaldean, Donostiara joango dira *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* lelopean egiteko duten herrialdeko manifestazioa. Antiguako tuneletik irtengo da, 19:00etan. Eguna kazerolakadarekin amaituko dute, 22:00etan.

Aurretik, gaur bilera informatiboa egingo dute Emakumeen Zentro Zibikoan, 18:30ean. Bihar, berriz, argazki masiboa Okendon, 12:00etan.

Adin guztientzat

Ohi bezala, udalak elkarretaratzea egingo du martxoaren 8an Okendon, 12:00etan. Prestatutako egitaraua, ordea, hori baino askoz zabalagoa da. Pasa den

asteazkenetik hilaren 15era luzatuko baita.

Txikienentzat, bi hitzordu daude. Batetik, ostegunean, martxoak 7, Sorgina Txirulinak *Emakume paregabeak eta berdintasuna* ipuina kontatuko die 5 urtetik gorako haurrei. Haur liburutegian, 18:00etan. Bestetik, hilaren 12an, Eidabe Taldeak *Mari eta gailera fabrika* antzetzuko du kultur etxean, 10:30ean.

Gazte xoei dagokienean, berriz, 12 eta 17 urte arteko nerabeek Martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak Emakumeen Zentroan ikusgai daude, 17:00etatik 19:30era. Azken egunean, hilak 6, sari banaketa egingo dute, 18:00etan. Erakusketari lekua hartuko dio *Ruta por el empoderamiento* bildumak. Bestalde, gazteen artean Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko gogoeta sustatzeko hilaren 15ean solasaldia egingo dute Gaztelekuan, 18:00etan hasita.

Publiko helduari bideratuta, hilaren 7an *El sexo débil ha hecho gimnasia* antzezlan, kultur etxean, 19:30ean; eta Abend jatetxean afari herrikoia antolatu dute, 21:30ean. Hilaren 9an, aldiz, IV. Zunba maratoia egingo dute Okendo plazan, 10:00etatik 13:00etara; eta hilaren 10ean, *Jaunne Femme* filmaren emanaldia, kultur etxean, 19:30ean.

Amaitzeko, hilaren 15ean, Biyak Bat erretiratuaren etxean, *Sexijentziak askatuz* antzetzuko du Bazan Behin Clown taldeak, 18:00etan.

Sasoi betean, unerik garrantzitsuenean

LOKEko atletak hiru urrezko dominekin itzuli dira Euskadiko txapelketatik. Naroa Furundarena luzera saltoan eta salto hirukoitzean nagusi izan da, 20 urtez azpiko kategorian. Enara Gonzalez luzera saltoan gailendu da 18 urtez azpiko kategorian



Naroa Furundarena eta Enara Gonzalez, txapelketan. LOKE ATLETISMOA

Adrian Garcia

Denboraldiko unerabakigarrietan sasoi betean iristeko prestatzen dituzte LOKEko atletak, eta Naroa Furundarenaren eta Enara Gonzalezen emaitzak ikusita, asmatu dute. Marka pertsonala ondu du lehenak 20 urtez azpiko

Euskadiko luzera saltoko txapelketan (5,50 metro); urrezko domina irabazteaz gainera, gutxiengo marka ere lortu du ere udan Espainiako txapelketan lehiatzeko. Gainera, jauzi hirukoitzean ere irabazi du. Bigarrenak, aldiz, lehia estu baten ostean eskuratu du 18

urtez azpiko luzera saltoko txapelketa, zentimetro bakarrarengatik.

Aurkaririk ez du izan Furundarenak; lehen jauzitik agindu du sailkapenean (5,22 metro), eta guztietan gaintu du bost metroko langa. Portugaleteko Aida Ruiz bigarren

sailkatuak 5,14 metro egin ditu gehienez, eta, hirugarrenak, Elgoibarko Eider Iglesiasek, 5,09 metro. Jauzi hirukoitzean lehiakiderik gabe geratu da, aurkaria ez baita aurkeztu. Halere, 11,60 metroko marka utzi du. "Une honetan oso maila onean dago. Junior mailan Euskadiko onenetakoa da", azaldu du Oscar Goikoetxea LOKEko entrenatzaileak.

Pozik dago atletismoko arduraduna, bi atletek ongi lehiatu dutelako. Baina batez ere, Gonzalezen jauzia nabarmendu du. Ez soilik pistan egindakoa, kalitatean emandakoa baizik. "Bera baino marka hobea duen atleta bati irabazi dio". Izan ere, Bilboko Maialen Mierak 5,60 metroko marka pertsonala du. Modu horretan, estalpeko eta aire zabaleko Espainiako txapelketa jokatzeko txartela eskuratu du lasarteoriatarrek. Hurrengo asteburuan lehiatuko du, Valentzian.

Gutxiengo markak

Atletismoan gutxiengo marke ematen dute txapelketa batera edo bestera joateko eskubidea. Alegia, titulu bat irabazteak ez du ziurtatzen aurrera egitea. Eta kirol eta maila horretan, Espainiako txapelketa da mugarrria. "Atleta normal eta maila handiko baten arteko desberdintasuna hori da, txapelketa horretan lehiatu ahal izatea". Horrek zailtzen du prestaketa; izan ere, maila onenean iritsi behar dira atletak

zita horretara, baina gutxiengo markak aurretik poltsikoratuta.

Konfiantzaz beteta, eta emaitzak lagun, asteburu honetan hitzordu garrantzitsua du Furundarenak: estalpeko Espainiako txapelketa, Madrilén. Luzera saltoan lortutako marka pertsonalarekin, Goikoetxeak uste du lehen zortzien artean sailkatzeko aukera duela. "Erronka zaila izango da". Edonola ere, maila handia dago modalitate horretan, eta horregatik, LOKEko arduradunak salto hirukoitzean ditu jarritako itzaropenak. "11,87ko marka pertsonala du, eta lehen bosten artean sailkatzeko borrokatu beharko da. Podiumera igozea oso zaila da, baina ez ezinezkoa".

Sasoi onean eta etxeko-lanak ongi beteta iritsiko da Lasarte-Oriako atleta. Gaztea izan arren, ongi daki lehiatzen, urduritasuna eta presioa alde batera utzita. "Fisikoa entrena dezakezu, baina badira beste gauza batzuk landu ezin daitezkeenak; psikologia, adibidez. Batzuk beldurtu egiten dira, ez dakitelako lehiatzen. Beste batzuk, ordea, hazi egiten dira, eta dutena baino gehiago ematen dute. Horietakoa da Naroa".

Juniorrek ez ezik, gaztetxoagoek ere ematen dituzte poztasunak LOKEan. Infantilek, esaterako. Gipuzkoako Federazioak sei neska-mutil deitu ditu Pazko astean Cambrilsen kontzentratzeko, Katalunian. Jokin Rodriguez, Haritz Grijalbo, Irati Valdivia, Amame Mesa, Naroa Elvira eta Nora Capistegi dira hautatuak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Bergara KE Larunbata. 16:30. Michelinen.
1. ERREGIONALA KOPA
Ostadar SKT - Intxurre KKE Larunbata. 14:00. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Urki CD - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Eibarren.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Tolosa CF - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Tolosan.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Danena KE Larunbata. 12:00. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Usurbil FT Larunbata. 12:45. Michelin Kirol gunean.

INFANTILEN 1. MAILA
Ostadar SKT B - SANSE A Larunbata. 09:45. Lasarte-Oriako Michelin Kirol gunean.
Tolosa CF - Texas Lasartearra Larunbata. 10:30. Usabal kiroldegian, Tolosan.
BIGARREN MAILA
Añorga KKE - Alaves Igandea. 17:00. Añorgan.
Eibar SAD - Athletic Club B Larunbata. 16:00. Ipurua zelaian, Eibarren.
ARETO FUTBOLA
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Bar Lasarte - Eskoriatza Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kiroldegian.
SASKIBALOA

KADETE ERRENDIMENDUA
Fiskalan ISB - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Azpeitiako kiroldegian.
ERRUGBIA
SENIOR OHOREZKO B MAILA
Babayauto Zarautz Beltzak RT - Durango Nissan Gaurisa Larunbata. 16:00. Asti zelaian, Zarautzen.
18 URTEZ AZPIKOAK
Gaztedi RT - Babayauto Zarautz Beltzak RT Larunbata. 11:45. Lakuan.
16 URTEZ AZPIKOAK
Gaztedi RT - Babayauto Zarautz Beltzak RT Larunbata. 10:30. Lakuan.
ATLETISMOA

ESPAINIAKO TXAPELKETA
Naroa Furundarena LOKEko atletak Espainiako 20 urtez azpiko txapelketa jokatu du, luzera jauzia eta jauzi hirukoitza probetan. Larunbata arratsaldea eta igande goiza. Madrilén.
HERRI LASTERKETAK
BEASAINGO HERRI LASTERKETA
Zazpi kilometroko lasterketa mistoa eta 15 kilometroko beste bat egingo dute. Igandea. 10:55. Beasainen.
MENDI LASTERKETAK
GALAR TRAIL
Hainbat herritarrek 18,5 kilometroko mendi lasterketa egingo dute. Igandea. 09:30. Erreniegan.
TXIRRINDULARITZA

KADETEAK
Beasainen kadeteek Usurbeko proba jokatu dute Larunbata. 11:00. Beasainen.
PILOTA
UDABERRI TXAPELKETA, SENIORRAK BIKOTEKA
Intza 1 - Gazteleku 2 Ostirala. 20:10. Michelingo frontoian.
INFANTILAK
Aide Zaharra - Intza Ostirala. 19:00. Loiolako frontoian.
Tolosa 2 - Intza Larunbata. 16:00. Beotibar frontoian, Tolosan. Bigarren partida.
PROFESIONALAK BINAKA
Retegi II/Erostarbe - Arteaga II-Eskiroz Astelehena. 16:30. Beotibar frontoian, Tolosan.

Igerilariak topera, Euskal Herriko txapelketan

Garaikurrak eta infantil mailako Espainiako txapelketarako hainbat gutxieneko marka eskuratu dituzte igerilari gazteek. Leire eta Ainhoa Martin ahizpak infantil eta junior mailako federazio arteko Espainiako txapelketan lehiatu dira, Castellon

Txintxarri

Buruntzaldea IKT gaztetxoak markak eta gutxienekoak metatzen doaz. Euskal Herriko infantil mailako txapelketan zein infantil eta junior mailako Espainiakoan, ederki egin dute lan.

Asteburuan, Euskal Herriko infantil mailako txapelketa lehiatu dute Galdakaon. Buruntzaldea IKTko hainbat gaztetxok bere onena eman, dominak eskuratu eta markak hobetzeaz gain, hainbatek Espainiako txapelketarako txartela ere eskuratu dute.

15 urtekoen kategorian, Aintzane Sarobek 50 metro libreko txapela eskuratu du, eta



Nora Imaz, Nerea Santos eta Aintzane Sarobe, lortutako dominetako batzuekin. BURUNTZALDEA

200m. eta 100m. libre probako bigarren postuan izan da. 100 m. proba egiteko 59,86 segundo behar izan ditu. Ondorioz, Buruntzaldea IKTko lehen emakumea da proba minututik behera egiten duena.

1.500 metro probako lehen postua eskuratu du Nerea Santosek, eta zilarrezko domina 800 m. libre proban.

Eneko Elizasuk 1.500 m. proba bigarren amaitu du, eta 400 m. eta 800m. librekoan, aldiz, hirugarren izan da.

Nora Imaz 14 urtekoen mailan lehiatu da, eta hiru domina eskuratu ditu: 800 m. libretako garaikurra, 400 m. libretako zilarrezkoa eta 200 m. libretako brontzezkoa.

16 urteko mailan, Unai Somovillak 200 m. estiloko hirugarren mailan izan da podiumean. Horrez gain, 100m. bular eta tximeletako probetan markak ondu ditu.

Espainiako txapelketarako gutxienekoak ere egin ditu Nora Imazek, 200m., 400m. eta 800m. libre probetan.

Bestalde, Leire eta Ainhoa Martin ahizpak Federazio arteko

infantil eta junior mailako Espainiako txapelketan lehiatu dute, Castellon, otsailaren 16 eta 17an. Euskadiko selekzioarekin parte hartu dute biek, eta lau marka pertsonal ondu dituzte.

Markak ontsen

Ainhoa 100m., 200 m. bular eta 200m. eta 400 m. estiloetan egin du igeri. Azken horretan bere marka pertsonala hobetu du, eta tartean, 100m. tximeletakoa.

Bular probetan ez du marka pertsonalik egin, baina 50 metroko zatia "orain arteko azkarrena" izan da.

Leirek ere lau proba egin ditu: bizkar estiloko 100m. eta 200m. probak, eta estilo libreko 200m. eta 800m. "Guztietan txukun aritu da, baina bereziki estilo libreko distantzia luzean ibili da ondo". Bere marka 3 segundotan jaitsi du.

Errelebo probetan ere lehiatu dira ahizpak. Biak batera izan dira 4x100 m. estilo proban, eta Leirek 4x200m. libreak ere parte hartu du. Bestalde, Nerea Irazuk alebin mailako teknifikazio saioa egin zuen otsailaren 16an, Gipuzkoako Federazioarekin.

Garraio publikoa:
520.000 lagunek
ateratzen diote
onura
Mugi deskontu
sistemari.

Azken lau urteetan Lurraldebusek egindako 96 milioi bidaia baino gehiagori esker, milaka pertsonari lurraldean zehar mugitzeko aukera eskaintzeak zentzua du soilik ahalegin horren atzean zu baldin bazaude. Eta zu bezala, gure lurralderako etorkizun hobea nahi duten milaka pertsonak.

Gipuzkoa,
zenbakiekin
soilik kontatu
ezin diren 4 urte.

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Hiru lasterketa: garaipen bat, eta beste bi podium

Raul Gomez Margallok hiru lasterketa egin ditu 48 ordutan. Hernaniko Sagar Lasterran bigarren izan da, Ibaetako igoera irabazi du, eta lehen beteranoa izan da Ormaiztegiko Sahara Krosean. 10 kilometro 32 minututik jaisteko erronka du buruan

Txintxarri

Kilometro batzuk egin ditu asteburu honetan Raul Gomez Margallo lasterkariak; kalitate onekoak, gainera. Hiru lasterketatan parte hartu du, eta denetan egon da lehian aurreko postuetan. Larunbat goizean, Sagar Lasterran bigarren egin zuen, Hernanin. Arratsaldean Ibaetako igoeran besoak altxa zituen helmugan. Eta, azkenik, igandean Sahara-Cross Salem Hach Embarek Oroimenean laugarren egin zuen, nahiz eta beteranoetan lehenengoa izan.

Nekaezina da Lasarte-Oriako herri lasterkaria, eta ezin du lasterketa bat bera ere alde batera utzi. "Ikusi nuen Hernanikoa eta Ibaetako egun berean jarri zituztela, eta pena ematen zidan huts egiteak, urtero egiten ditut eta. Asteburu osoa izan da", kontatu dio TXINTXARRI-ri.

Sagar Lasterra atsegin du korrikalariak, eta hasieratik atera zen Sergio Roman irabazlearen atzetik. "Atzekoei abantaila atera genien, baina 6. eta 7. kilometro artean ihes egin zidan. Ni baino gehiago da Roman, baina saiatu egin behar nuen". 9 kilometro eskas ditu lasterketak, aldapa gora gogor batzuekin.

Ikusita garaipena zaila zuela, esfortzua neurtzen hasi zen Margallo, bigarren postua ziurtatzeko. "Burua arratsaldeko lasterketan nuen jarria".

Garaipena Ibaetan

Larunbateko bi lasterketek badute berezitasun bat: aldapek asko gogortzen dute proba. Ibaetakoak sei kilometroko luzera, baina 800 bat metroko malda pikoa du: Aingeru zaindariaren igoera. "Mikel Albenizekin aritu nintzen lehian. Kostata, baina lortu nuen aldapa hasi aurretik atzean uztea, lasaiago igo ahal izateko".



Raul Gomez, Igarako igoeran. JAVIER ZATARAIN

IBAETAN IHES EGINDA HASI DU IGOERA, ALDAPA GORAN ABANTAILA KUDEATU AHAL IZATEKO

20 segundoko aldearekin iritsi zen helmugara".

Azkenik, igandean ahal zuen moduan saiatu zen lasterketa txukuna egiten. Aurrekoei jarraitzea zuen helburua, baina bezperako nekeak nabari zituen hanketan. "Aldapa gogor bat zegoen ibilbidean, asfaltatu gabea, eta Ibaetako igoera etorri zitzaidan gogora. Lur jota utzi ninduen, eta erritmoa galdu nuen".

Edonola ere, podiumean sartzeko lehian ibili zen azken unera arte. "Hirugarren nengoen, baina kilometro erdiren faltan aurreratu ninduten". Laugarren postuan iritsi zen, podiumetik bost segundo eskasera. Halere, saria eraman zuen etxera, beteranoetan garaipena eskuratuta. "Lore sorta jasotzera igo nintzen gutxienez podiumera".

Hurrengo asteburuan atsedean hartuko du Margallok. "Sagardotegia dut", dio barrez. Udaberri aldean datozen lasterketak prestatuko ditu gero; Donostiako Maratoi Erdiko 10 kilometrokoa du buruan: "Ibilbide azkarra da, eta egun on bat izaten badut, 32 minututik jaitsi nahiko nuke".

Carbayeda hirugarrena izan da Pistako Euskadiko Txapelketan

Kadete mailako Hego Euskal Herriko taldeetako 60 txirrindulari baino gehiago lehiatu dira asteburuan

Txintxarri

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako Beñat Carbayeda hirugarrena izan da kadete mailako Pistako Euskadiko Txapelketan, Haritz Sein eta Martzel Etxeberrriaren atzetik. Partaideek omnium bat osatu zuten, *scratch*, *tempo*, eliminazio eta puntuazio probetan arituta. Tafallako (Nafarroa) Miguel Indurain belodromoan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako taldeetako 61 txirrindulari aritu ziren. Txapelketa junior eta kadete mailetan egitekoa zen, baina errepideko lehen lasterketarekin bat egin zuenez,



Beñat Carbayeda podiumean. EUGENIO POZO

junior mailako partaideak falta ziren, eta kadeteak bakarrik aritu ziren nor baino nor.

Udaberriko txapelketa hasi dute herriko gimnastek

Asteburuan hasi zuten gimnastika erritmikoko udaberriko txapelketa Ibarren. Lasarte-Oriako gimnastek alebin eta infantil mailetan parte hartu zuten. Txikienen artean, Landaberriko hiru taldeek 10, 16 eta 25 postuetan amaitu zuten, sailkapeneko erdigunean, guztira

41 talde baitziren maila horretan. Infantiletan, aldiz, LOKE-Oriarteko bi talde zeuden parte hartu zuten hamabosten artean, 4. eta 8. postuetan sailkatuta.

Taldeetako arduradunak pozik daude lortutako emaitzekin, izan ere, gimnastetako batzuentzat txapelketa batean parte hartzen zuten lehen aldia baitzen. Gainera, talde askok parte hartzen dutenez, zaila izaten da goiko postuetan egotea.




OSTADAR IPAR MARTXA TALDEA

Ipar martxa, Ametzagainan

Ostadar Ipar Martxako kideek irteera egin zuten Ametzagainara asteburuan. Intxaurrendora Topoz joan, parkean barrena ibili, eta Txomin Eneara jaitsi ziren. Urumea ibai ertzetik Kursaalera bidea ere egin zuten, Eason bueltako trena hartu aurretik. Bestalde, taldeak ipar martxa hastapen ikastaroa antolatu du; hileko lehen larunbatetan izango dira saioak. Parte hartzeko Ostadarren bulegoetan izena eman behar da.

ZORION AGURRAK



Urko
Zorionak Panpoxo!!! 3 urte bete dituzu iada. Segi holako alaia ta zoriontsua izaten. Etxeko guztiak txoratzten gaude zukin. Ondo pasa eta muxu potolo asko!



Sara eta Lorena
Zorionak, maitiak, zuen 11. urtebetetzean. Egun zoragarria opa dizuegu. Aitaxoren eta amatxoren partez.



Garazi
Zorionak Garazi, zure lehenengo urtebetetzean!!!! Muxu handi bat aita, ama eta Izaroren partez.



Aner
Zorionak txapeldun!!! Oso ondo pasa zure 5. urtebetzean. Muxu pila bat familia guztiaren partetik.



Erik
Zorionak Erik zure sei urte handiak betetzean. Oso ongi pasa zure familia eta lagun guztiakin. Asko maite zaituzte. Muxuak!!



Aiora
Zorionak printzesa!! Oso ondo pasa zure 4. urtebetetzean. Muxu pila familia guztiaren partetik.



Nahia
Zorionak Nahia! Ondo pasa zure zazpigarren urtean! Muxu handi bat maitia



Ibai
Zorionak txapeldun, oso ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat etxekoan partetik



Jone eta Juan Luis
Zorionak monikakos! Zuen kontu gaurko afaria. Muxu handi bana! Ondo pasa!



Iune
Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure egunean eta mila pila muxu familiaren partez!!! Muaaaakk.



Udane
Zorionak! Muxu potolo bat Unax, guraso eta familiaren partez



Iñigo
Zorionak artista! Tuba utzi ta korneta jotzen hasi beharkozu! Ondo ospatu 40 urtetxoak! Igandean kartera bete bete ekarri!

JAIOTAKOAK


Amelia Fernandez Hernandez. Otsailaren 22an.

HILDAKOAK


Antonia Iñigo Campos. Otsailaren 27an.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 1




Larunbata, 2




Igandea, 3




Astelehena, 4



Asteartea, 5



Asteazkena, 6



GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 1 GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 2 DE MIGUEL
Igandea, 3 DE MIGUEL
Astelehena, 4 ORUE
Asteartea, 5 DE MIGUEL
Asteazkena, 6 LASA
Osteguna, 7 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	6		2			9		1
		8		4		6		2
1		2	6				5	4
		7	3					8
3	8			2				
	5	1	8		9	4		
7			4	8				6
		3	7					4
	4	6			5	1		7

OHARRAK

Irteera Bermeora

Biyak Bat elkarteko kideek Bermeora irteera antolatu dute martxoaren 21ean. Bermeo ezagutzeko bisita gidatua egingo dute, besteak beste, alde zaharra, edo erdi aroko bidea. Casino jatetxean bazkalduko dute. Bazkideentzako prezioa 35 euro da. Bazkide ez direnek 45 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea Biyak Bat elkarteko bulegoan egingo da eta martxoaren 11n irekiko da.

Bidaia Britainia eta Normandiara

Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatu du Britainia eta Normandiara, uztailak 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

LANA

ESKARIA

Pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetarako eskaintzen dut neure burua. 632687583

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Telefonoa: 663488438.

Pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetarako eskaintzen dut neure burua. 631895039.

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra bat alokatzen da Lasarte-Oriako hipodromoko etxebizitzetan. Telefonoa: 648 614 769.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Inigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Inauteriak. Ostegunean Inauteriek eztanda egingo dute Tolosan. Lasarte-Orian, berriz, ostiraletik astelehenera izango dira adin guztietarako ekintzak. Ikastetxeetako haurrek eta gaztetxoek emango diote hasiera asteburuari. Fikziozko pertsonaiez eta beste mozorroez beteko da erdigunea hiru egunez. Mozorro lehiaketa ugari izango dira. Lasarte-Oria ostiraletik igandera.

OSTIRALA 1

LASARTE-ORIA Erakusketa

Martxoaren 8ko kartel lehiaketaren erakusketa martxan da. Martxoaren 6ra arte irekita egongo da. Emakumeen Zentro Zibikoa, 17:00etatik 19:30era.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi akademiako ikasle beteteranoen bigarren erakusketak ateak irekiko ditu. Martxoaren 8a arte zortzi gaztetxoren artelanez gozatu ahal da. Antonio Mercero gunea, 17:30etik 20:00etara.

IRUN Erakusketa

Pilar Soberon herritarren lanak, *Hodei putzua*. *Jardin vertical* erakusketan ikusgai izango dira. Menchu Gal aretoa. Ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

LARUNBATA 2

ANDOAIN Inauteriak

Inauterien 40. urteurrena ospatuko dute: 11:30etatik aurrera, Buruhandi eta erraldioen konpartsa. 12:00etan: Mozorroak eta konpartsak kalez kale ibiliko dira

Soinua Musika Eskolako kalejira 17:00etan, Inauterietako desfileari hasiera, txarangaz lagunduta. 23:00etatik 3:00etara, Gazte jai disko Festa, Nafarroa Plaza. Andoain, egun osoa.

IGANDEA 3

ASTIGARRAGA Inude eta artzaiak Inude eta artzainen konpartsa aterako da Astigarragako kaleetatik. Danborrada, txistulari, trikitalari eta txaranga izango dute lagun. 12:30ean, dantzaldia eskainiko dute, Joseba Barandiaran plaza. Astigarraga, 11:00etatik aurrera.

ANDOAIN Inauteriak

Inauterien 40. urteurrena ospatuko dute: 12:00etan, Mozorroak eta konpartsak kalez kale. 14:00etan, Bazkari herrikoa, Goiko plaza. 16:45ean, Rock kalean ikuskizuna Goiko plazatik aterako da. Andoain, egun osoa.

ASTELEHENA 4

LASARTE-ORIA Erakusketa

Ruta por el empoderamiento erakusketa irekiko da eta martxoaren 15era arte ikusgai izango da. M8ko egitarauaren barruko ekintza. Emakumeen Zentro Zibikoa, 17:00etatik 19:30era.

OSTIRALA 1

Emanaldiak

Ikastetxeetako haur eta gaztetxoek emanaldiak eskainiko dituzte: 15:00etan, Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeetako haur eta gaztetxoek jaialdia, Sasoeta eraikineko patioa. 15:30ean, Landaberri HH3-LH2koek Euskal Inauterien emanaldia eskainiko dute, Landaberri-Garaikoetxea eraikineko patioa. 15:30ean, Landaberri LH3 eta LH6koen jaialdia, Landaberri-Zubieta eraikina. Eguraldi txarra egingo balu, Sasoeta-Zumaburuko emanaldia Loidibarren frontoian egingo litzateke, eta Landaberri-Garaikoetxeako saioetara ezingo lirateke gurasoak sartu. Ikastetxeak, 15:00etatik aurrera.

Gazteentzako ekintza

8 eta 16 urte arteko gazteentzako jaialdia izango da. Mozorro lehiaketa, musika, photocalla eta askariaz gozatuko dute. Antonio Mercero plazako karpa, 18:00etatik aurrera.

LARUNBATA 2

Inauteriak

Egun osoko egitaraua antolatu dute Konpartsek udalaren laguntzaz: 12:00etan, konpartsak Okendo plazan bilduko dira. 12:30ean, Konpartsen aurkezpena egingo da. 13:30ean, Bakarkako mozorro lehiaketa. 14:00etan, Korrozen eta Konpartsen lehiaketa eta irabazleei sari banaketa.

14:30ean, bazkari herrikoa, Antonio Mercero plazako karpa. Bakoitzak berea eraman behar du. Oaintxe in deu txarangak lagunduta. 16:00etan, Super Bingoa. 17:00etan, desfilea Lasarte-Oriako erdiguneko kaleetatik barrera. 20:00etan, Konpartsa kideentzat txokolatada. 23:00etan, Disko jai, Antonio Mercero plazako karpan. Lasarte-Oria, egun osoa.

ASTELEHENA 4

Familiarentzako ekintza

2 eta 8 urte bitarteko haur eta haien senideen mozorro lehiaketa. Photocalla eta gozokiak ere izango dira. Antonio Mercero plazako karpa, 17:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 6

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Oriarte Institutuko guraso elkarteak gurasoei zuzendutako *Sarean kateatua* hitzaldi tailerra antolatu du. Oriarte Landaberri eraikina, 17:30ean.

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Martxoaren 8ko kartel lehiaketako sarien banaketa egingo dute. Emakumeen Zentro Zibikoa, 18:00etan.

OSTEGUNA 7

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Sorgina Txirulinak *Emakume paregabeak eta berdintasuna* ipuin-kontaketa eskainiko du. 5 urtetik gorako haurrei zuzendua. M8ko egitarauaren barruko ekintza. Manuel Lekuona Kulturetxeko haur liburategia, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Lan eta Lan antzerki taldeak *¡El sexo débil ha hecho gimnasia!* lana eskainiko du. Sarrera, 4 euro. Martxoaren 8ko egitarauaren barruko ekintza. Manuel Lekuona Kulturetxea, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Afaria

Afari herrikoa egingo dute. Izena ematea Emakumeen Zentro Zibikoa egingo da. M8ko egitarauaren barruko ekintza. Abend jatetxea, 21:30ean.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Mi vecino Totoro
Igandea: 17:00.
El Blues de Beale Street
Igandea: 19:30.

USURBIL

SUTEGI

Gazte harrigarria, T.S. Spivet
Igandea: 17:00.



LABURPENA

El Blues de Beale Street

Zuzendaria eta gidolaria: Barry Jenkins. **Herr.:** AEB (2018). **Musika:** Nicholas Britell. **Antzezleak:** KiKi Layne, Stephan James, Regina King, Diego Luna, Pedro Pascal, Teyonah Parris, Colman Domingo, Brian Tyree Henry, Ed Skrein, Michael Beach, Emily Rios, Finn Wittrock, Dave Franco, Aunjanue Ellis, Faith Logan. **Iraupena:** 119 minutu.

Arrazakeria eta errugabetasuna

James Baldwin idazlearen *If Beale Street Could Talk* liburuan oinarritutako filma aurkezten du oraingoan Barry Jenkins zuzendaria. Oscar sarietan Regina Kingek taldeko emakumezko aktore onenaren saria eskuratu zuen. Egokitutako gidoi onena eta jatorrizko soinu banda onenaren sarietarako ere hautagai zen filma. 1970eko hamarkadako mugimendu zibila handia da, baina komunitate afro-amerikarrak

oraindik bidegabekeriak jasaten ditu.

Harlem auzoa. Tish eta Fonny bikotea pozik bizi da. Zoritxarrez, Fonnyri emakume bat borxatu izana egozten diote. Fonny espetxeratu eta haurdun dagoela jakiten du Tish. Umea jaio baino lehen Fonny kalean egotea nahi du guztik batera bizitzeko. Horregatik, Tish bere bikotekidearen errugabetasuna frogatzeko borrokan hasi beharko du.



Intzak Parrandan konpartsa suhiltzaile taldea izan zen iazko Inauterietan. Kamioia eta guzti iritsi ziren Okendo plazara. Aurten iratxoak eta miragarriak izango dira. TXINTXARRI

"Karrozarekin nabarmentzen saiatzen gara, puntuak lortzeko"

NURIA PALACIOS INTZAK PARRANDAN KONPARTSAKO KIDEA

Ostegunean, Tolosan Inauteriei hasiera eman zitzaion. Lasarte-Orian, gaurtik astelehenera izango dira ekintzak. Mozorroa jantzeko unea iritsi da. Bihar konpartsa eta mozorroen lehiaketa izango dira. Konpartsen artean, lehia bizia izango da

Nerea Eizagirre

Intzak Parrandan taldeak iaz konpartsa onenaren saria irabazi zuen Inauterietan. Suhiltzaile kamioiak herritar bat baino gehiago harritu zuen Okendo plazara sartzean. Ez da lehen aldia saria irabazten zutena, *Alizia herrialde miresgarrian* ipuineko pertsonaiek garaipena eman zieten 2015. urtean. Aurten 30 bat pertsonako konpartsa izango da. Garaipena buruan, Intzak Parrandak taldeko iratxo

eta maitagarriak guztiak liluratsen saiatuko dira. Baina zail omen dute.

Guztia prest biharko?

Bi edo hiru gauzatxo geratzen dira, baina aurten ondo goaz. Ez dakit aurten lehenago hasi garen edo, baina gehiena prest dago.

Iaz suhiltzaile kamioia egin eta saria irabazi zenuten. Beti saiatzen zarete zerbait berezia egiten...

Bai. Urtero karrozarekin nabarmentzen eta puntuak

lortzen saiatzen gara. Gurea ez da mozorroak egitea edo dantzan egitea, beraz, puntuak alor horretan lortzen saiatzen gara. Aurtengoa ez da iazkoa bezain ikusgarria, baina ziur jendeak

"BI URTETAN JARRAIAN TALDE BERARI LEHEN SARIA EMATEA EZ DA OHIKOA IZATEN"

gustuko duela. Oso ondo geratu da.

Gaia jakin eta zenbat denbora behar duzue mozorroa erabakitzeko?

Hurrengo urteko gaia Inauterietan pasata egiten den konpartsen balorazio bileran erabakitzen da. Taldeari jakinarazi eta ideiak ematen ditugu. Abuztua-iraila aldera erabakitzen dugu zer egin.

Nola moldatzen zarete guztia prestatzeko?

Irailan mozorroak eta karroza nola egin begiratsen hasten gara. Denok dena egiten dugu, ez dugu azpitalderik egiten. Batzuek erraztasun handiagoa dute zerbaitetarako, karroza egin edo mozorroak josteko... Baina orokorrean, denok denetarik egiten dugu.

Mozorroak zuek egindakoak dira?

Urtearen arabera izaten da. Aurten, mutilenak eta umeenak guk egindakoak dira, eta neskenak, berriz, erosi egin ditugu. Iaz guztiak erosi genituen. Hala ere, erositakoei beti zerbait moldatzen diegu, gure ukitua ematen diegu.

Oholtzan dantzan egin behar duzue, baita desfilean ere. Nola prestatzen duzue?

Taldean dantza egiten duen kide bat dugu eta, berak sortzen ditu koreografiak. Pausoak grabatu, koreografia osoa grabatu eta guztioi bidaltzen digu. Pauso errazak egiteko eskatzen diogu. Gurea ez da dantza. Gero bakoitzak bere etxean ikasi behar du, oso zaila baita guztiak batzea.

Azken bi asteetan elkarrekin entseatzen dugu guztiak bat egiteko.

Ez da lehen aldia saria eskuratzen duzuen...

Duela lau urte, *Alizia herrialde miresgarrian* ipuinean oinarritu ginen. Karroza polita zen, eta jantziek ere lagundu zuten. Pertsonaia nagusiak zeuden karrozan, eta karta-soldaduak dantzan. Horrek puntu asko eman zizkigun.

Zer egin zenuten iazko sariarekin?

Bazkari bat egin eta guztia, urdaiazpiko, gazta, solomo eta saltxitxtoa, jan genuen. Egun osoa pasa zuten urdaiazpikoa moztzen, eta oraindik zerbait geratu zen. Etxera eraman zuen norbaitek.

Lehia handia izaten da konpartsen artean. Baina konpartsek bozkatzeko dute irabazlea, zer hartzen duzue kontuan?

Lehia handia izaten da. Baina gero, bozkatzeko orduan, guk behintzat guztia hartzen dugu kontuan: mozorroa, karroza eta dantza. Batzuk trebeagoak dira dantzan, besteen jantzia hobetuz da... Gu, aipatu bezala, beti saiatzen gara karrozarekin puntuak lortzen.

Aurten ere, irabazteko prest?

Zaila izango da. Konpartsen artean bozkatzeko dugu, eta bi urtetan jarraian talde berari lehen saria ematea ez da ohikoa izaten. Guk irabaztea dugu buruan. Zurrumurruak egia badira, lehia handia izango da aurtengoa karrozei dagokionez behintzat.